

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: BERTAKO PRODUKTUAK MERKATURATZEKO ETA KONTSUMOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Hilabete hasierako larunbateko udal merkatua tokiko produktuekin sustatzeko laguntzak arautzea.

Laguntza hauen bidez, hilean behin izaten den azokara etortzen diren ekoizleei lagundu nahi da, horiek hilero gutxieneko diru kopuru jakin bat izanez eta bertako ekoizleen eta lana balioan jarritz eta bertako eta garaiko produktuen kontsumoa areagotuz.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Postu bakoitzeko onuradun bakarra izan ahalko da. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da honako baldintza bereziak betetzen dituen:

-Azokan bertako produktuen salmenta (hilabete hasierako lehen larunbatean), beti ere honako baldintzak betetzen dituen:

- a) Fruta eta barazki salmentetan, garaian garaiko produktuak eskainiko dira. Gutxienez: 3 produktu.
- b) Bestelako produktuetan ez da kopuru minimorik ezarriko, hau da: gazta, ezti, ogia...
- c) Sei hilekoan, gutxienez 3 larunbatetan saldu behar dute. Horren jarraipena Udaleko teknikari batek egingo du.
- d) Udal Ogasunarekiko, Foru Aldundiko Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharretan egunean egotea.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Ekoizle edo artisau bakoitzak azokan parte hartutako larunbat bakoitzaren truke 60€ jasoko ditu.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Epea: Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2024-11-30ean amaituko da.

Modua: Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, ahal izanez gero edo aurrez aurre iGunerara joanda.

Aurkeztu beharreko agiria: Agiri hau erantsi beharko zaio dirulaguntzak eskuratzeko eskabideari: Naren fotokopia.